

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA, 2021 EKITALDIA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.c) artikulua arautzen duenaren arabera, aurrekontua gauzatzeko oinarri hauek ezartzen dira.

1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukia

Udal sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, honako hauek osatzen dute: Hernaniko Udala, “Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak” erakunde autonomoa (aurrerantzean Ongintza), eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak.

2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak

Erakunde autonomoak eta Toki Entitate Txikiak ezingo diote inori abalik eman, ez eta edozein izaeratako bermerik ere.

3. artikulua.- Zorpetze muga

Gehieneko zorpetze muga Aurrekontu Orokorra osatzen duten ekitaldi honetarako Aurrekontuen Sarreren Egoeretan dator jasoa.

Erakunde autonomoak eta Toki Entitate Txikiak beren aurrekontuetako gastuak finantzatzeko ezingo dute kreditu eragiketarik hitzartu. Halakorik behar izanez gero, Udalak emandako transferentziek orekatu beharko dute haien aurrekontuak.

Udalak bakarrik hitzar ditzake urtebetetik beherako zorpetze eragiketak, Diruzaintzan sor daitezkeen unean uneko premiak finantzatzeko.

Diruzaintzako eragiketa horien hitzarmena eta beren amortizazioa, aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra

1.- Kredituen lotespen juridikoen mailak

Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean edo behar bezala onartutako horren aldaketetan berariaz baimendutako helbururako erabili ahal izango dira soilik, eta izaera mugatzaile eta loteslea edukiko dute. Horrenbestez, kreditu horien zenbatekoa gainditzea dakarren gastu-konpromisorik ezingo da hartu eta, hartzen bada, erabaki, ebazpen edo administrazio-egintza hori zuzenbide osoko deuseztasunak jota geratuko da eta dagozkion erantzukizunak eskatuko dira. Muga hori ondoren zehazten diren lotespen-mailen eremuan beteko da.

Hain zuzen, 21/2003 Foru Arauaren 19.2. artikulua ematen dituen aukeren arabera, lotespen-mailak ondoren azaltzen den moduan geratzen dira ezarrita:

Udala:

- I. kapitulua: Kapitulu mailan.
- II. kapitulua: Kapitulu mailan.
- III. Kapitulua, VIII kapitulua eta IX kapitulua: Partida guztiak uztartuta.
- IV. kapitulua: Kapitulu mailan.
- VI. kapitulua: Kapitulu mailan.
- Gainerako kapituluak: lotespena aurrekontu partida mailan.

Alokairua diru-laguntzak -02.480.01.231.03 eta 02.480.01.231.04 partidak- elkarren artean uztartuta daude.

Klasifikazio organikoa 09-Aurrekontu Partehartzaileak elkarren artean uztartuta daude.

“Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak”:

- I. kapitulua: Kapitulu mailan.

- II. kapitulua: Ekonomi sailkapenari dagokionez: kapitulua. Programen araberako sailkapenari dagokionez: programa-taldea (5 digitu).
- IV. kapitulua: Kapitulu mailan.
- VI. kapitulua: Kapitulu mailan.
- Gainerako kapituluak: lotespena aurrekontu partida mailan.

Ereñotzu Toki entitate Txikia:

- I-etik-IX-rako gastu kapituluak, biak barne: partida guztiak lotzen dira elkarren artean.

2.- Kreditu globala

Udalaren Aurrekontuko Gastuen Orriaren barruan, 929.00 gastu programa atalean, "Kreditu globala" izeneko partidak daude. Beste ordainketa kreditu batzuen zuzkidura gabeziei aurre egiteko edo zuzkidurarik ez duten behar berriei aurre egiteko, 21/2003 Foru Arauaren 23. artikulua arabera.

3.- Kreditu zabalgarriak

Udalaren eta bere erakunde autonomoaren aurrekontuen gastuen orriko partida hauek kreditu zabalgarritzat hartzen dira, bakoitzari esleitzen zaion finantzaketaren arabera.

KREDITU ZABALGARRIAK			
	PARTIDA	IZENA	HASIERAKO ZENBATEKOA
Hernaniko Udala	1 02.226.97.920.00	Iragarki ofizialak	24.000€
Hernaniko Udala	1 02.823.01.931.00	Aurrerakinak pertsonalari	10.000€
Hernaniko Udala	1 05.226.99.133.00	Kaxkora sarrera kalteak	1.000€
“Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua”	1.0101.823.01.313.99	Aurrerakinak pertsonalari	1€

FINANTZAKETA			
	PARTIDA	IZENA	HASIERAKO ZENBATEKOA
Udala	2.399.03	Partikularren iragarkiak	1.000€
Udala	2.381.01.	Itzulerak. Piboteetako kalteak	5.000€
Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua	2.823.01	Pertsonalaren aurrerakinak ateratzea	1€

4.- Galarreta eremuko sistema orokorra eta urbanizazioa.

4.1.- Galarreta Sistema Orokorra.

Hernaniko Udalbatzak 2011ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran behin betiko onartu zuen Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspeneren Testu Bategina. Dokumentu horrek hau jasotzen du zehaztapenen artean: “Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen elementuen aldaketa 10. eremuan (Galarreta) eta 23.5 arearen zati batean (Sorgintxulo)”.

Dokumentu horiek Galarretako (azpi)eremuaren Bide Sistema Orokorra antolatzen dute. Hainbat jarduketa jasotzen dira GI-2132 eta GI-3401 errepideetarako, horien proiektzioa eta exekuzioa Hernaniko Udalaren ardurapekoa izanik eta finantzazioa, berriz, (azpi)eremuan aurreikusitako garapen berriei egozten zaielarik, hain zuzen ere, sektore hauei: 10.5 (%52,430), 10.7 (%18,994), 10.6 (13,157), 10.8 (%8,914) eta area honi: 10.9 (%6,505).

Jarduketaren sustapena udalarena bada ere, planeamendu orokorreko dokumentuak berak onartzen du jarduketa hori zatika egin dadila, egin beharrekoak area eta sektore desberdinen artean koordinaturik egite aldera, eta, are gehiago, Sistema Orokorren hainbat fase edo zatiren exekuzio zuzena Jarduketa Integratuko eremu zehatzei egozteko baimena ematen dio udalari, bakoitzari dagokion ekarpen ekonomikoaren arabera eta egitasmoan bertan helburu horretarako aztertutako obren faseak kontuan hartuz.

4.2- GA-06 eremuaren urbanizazioa.

Plan Partzialak kooperazio sistema aurreikusi du eremuaren garapenerako. Ondorioz, Udalak sektorearen garapena bermatu asmoz egindako gastuak GA.06 sektoreko jabeen kontura dira eta hortaz, araudiak aurreikusi bezala jabeek gastuen derramak egin beharko zaizkie eta horiek kobratzeko bideak jarri beharko dira. Hau honela, aurrekontuak bai gastua eta bai diru-sarrerak aurreikusi beharko ditu. Diru-sarrera partidak aurrekontuaren VII. Kapitulura atxikituko dira, baita ere gastua burutzeari lotutako finantzazioa.

4.3.- Aurrekontu egokitzapena.

Gastu exekuzioaren baitan, aurrekontuan jasoko dira dagokion gastuak (15120 gastu programa). Sarrerak berriz, eremu bakoitzaren garapeneren baitan eskubideak aintzatesten diren neurrian egikarrituko dira.

Galarreta eremuaren urbanizazio lanak burutzeko, lotuta dagoen Diruzaintzako Gerakinaz gain, kontingentzia (diru erreserba) egin zen, 2.776.229,00 euro, 2019ko aurrekontu likidazioaren Diruzaintzako Gerakinetik.

5. artikulua.- Kreditu aldaketa

1.- Gastu bat egin behar eta horretarako zuzkidurarik ez dagoenean eta 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, lotespen juridiko maila gainditzen duenean, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren arabera dagokion Aurrekontua Aldatzeko espedienteak izapidetuko da, legeek agintzen dutenari eta Arau honetan arautzen diren berezitasunei lotuta.

2.- Aurrekontua aldatu ahal izateko beharrezkoa da hori justifikatzen duen proposamen arrazoitu bat egitea, onartu zenean finkatutako helburuak lortzeko izan dezakeen eragina baloratuko duena.

3.- Aldaketa espedienteak alde aurretik informatuak behar dute izan, Udaleko kontu hartzaileak informatuak, eta gero ondorengo idatz zatietan arautzen diren onartzeko izapideak bete beharko dituzte.

4.- Gastu partida berri bat sortzen denean, kontabilitate inputazioa edota zerbitzu kostuen inputazio egokiago bat egiteko, kasu horietan ez da kreditu aldaketa gisa kontsideratuko, kontabilitate doitzea baizik, beti ere, lotespen juridiko maila berean bada, eta lotespen guztizko kopuruaren aldaketarik eragiten ez badu.

5.1.- Kreditu transferentziak

5.1.1.-Kreditu transferentziazat, aurrekontuaren zenbateko osoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo partziala lotura juridikoko maila ezberdinei dagozkien aurrekontuetako partiden artean eramaten duen gastuen aurrekontuaren aldaketa hartuko da.

5.1.2.- Kreditu transferentziek aurrekontuetako partida berriak sortaraz ditzakete.

5.1.3.- Gastu programa baten barruko transferentziak alkatearen, erakunde autonomoaren lehendakariaren edo Toki Entitate Txikoko auzo alkatearen eskumenekoak izango dira, bere aurrekontuen eremuan, ondasun-inbertsioak aurreikusitako kontsignazioak gutxitzen dituztenak izan ezik, horiek udalbatzak baimenduko baititu.

5.1.4.- Programa funtzional ezberdinen arteko transferentziak alkatearen, erakunde autonomoaren lehendakariaren edo Toki Entitate Txikoko auzo alkatearen eskumenekoak izango dira, bere aurrekontuen eremuan, jatorrizko eta destinoko programetako aldaketen diferentzia metatuak aurreikusitako hasierako kontsignazioen %25 gainditzen ez duenean, ondasun-inbertsioetarako kontsignazioak gutxitzen dituztenak izan ezik.

5.2.- Kreditu gaikuntza

5.2.1.- Ekitaldian lortu baina Udalaren eta bere erakunde autonomoaren aurrekontuetako sarreren orrietan aurreikusi gabeko sarrerek, edo aurrekontuetan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen dutenek, aurrekontu kredituak gaitu ahal izango dituzte gastuen orri egokian.

5.2.2.- Kreditu berriak gaitu edo daudenak zabaldu ahal dituzten sarreretat hartu ahal izateko iturriak honako eragiketa hauek izango dira:

a) Norbanakoek edo pertsona juridikoek egindako ekarpenak edo ekarpenerako konpromiso irmoak; beti ere, udalarekin, bere erakunde autonomoarekin edo Toki Entitate Txikiarekin batera, hurrenez hurreneko helburu edo xedeen barruan, beren izaera bereziagatik dauden gastuak finantzatzeko direnean.

b) Ondare ondasunen besterentzeak.

c) Zerbitzugintzak.

d) Maileguen itzulkinak.

e) Beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jaso edo pertsona edo erakunde pribatuek ematen dituzten beste ekarpen batzuk.

f) Zorrik gabe egin eta itxitako ekitaldiei dagozkien ordainketen itzulkinak.

5.2.3.- Kreditua gaitzeko betebeharrak hauek bete behar dira nahitaez:

- Aurreko 5.2.2. artikuluko a), b) eta e) idatz-zatietan aipatutako kasuetan, eskubidea aintzatetsi behar da, edo ekarpena egiteko konpromiso irmoa badagoela.

- Aurreko 5.2.2. puntuko c) eta d) idatz-zatietan aipatutako kasuetan, eskubidea aintzatetsi behar da; nolana ere, horrelako kasuetan kreditua baliatu ahal izateko eskubideak bildu beharko dira lehenik.

- Aribideko aurrekontuko itzulkinak gertatzen direnean, itzulkina kobratu egin behar da.

5.2.4.- Aurreko 5.2.2. puntuko a) eta e) idatz-zatietan deskribaturiko eragiketetan oinarrituz gaitutako kredituak, dagokionean, ondorio horretarako hitzartutako proiektu jakin batzuk burutzeko aplikatu beharko dira. Eta b) idatz-zatian deskribaturiko eragiketetan oinarrituz gaitutako kredituak, kapital eragiketarako finantzatzeko aplikatu beharko dira.

5.2.5.- Lortutako sarrerak finalistak badira, alkateak baimenduko du gaikuntza, Udalaren Aurrekontuari badagozkio, erakunde autonomoko lehendakariak, haren aurrekontuari badagozkio, eta auzo alkateak, berriz, Toki Entitate Txikiari badagozkio. Gainerako kasuetan eskuduntza udalbatzari dagokio.

5.2.6.- Aurreko 5.2.2. atalean ezarritakoaz gain, krediturik gaitu ahal izango da partida zabalgarrietan eta kreditu globalean, likidatutako tributu-sarrera berri edota handiagoz baliatuz.

5.3.- Kreditu txertaketa

5.3.1.- Udalaren, bere erakunde autonomoaren eta Toki Entitate Txikiaren indarreko aurrekontuei, kasuan kasuan, bakoitzaren aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastuen orrien barruko ordainketa kredituak txertatu ahal izango zaizkie, beti ere aintzatetsiak diren betebeharren menpean egon gabe hurrengo kasuetarik batekoak direnean:

- a) Baimenpeko transferentziaren xede izan diren kredituak eta kreditu gehigarriak, beti ere, kasu bietan, ekitaldiko azken hiruhilekoan emanak direnean.
- b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, beti ere, bidezkotutako kariak direla bide, beraietarako betebeharra ezin hartua denean.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketen ziozko kredituak.

5.3.2.- Kredituak txertatzen direnean, jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berdinarekin egingo dira.

5.3.3.- Kreditu gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza baliabide egon beharko du.

5.3.4.- Kreditu txertaketak txertatzen diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira, geroago ezin daitekeela txertaketa gehiagorik egin, helburudun sarreraren bitartez finantzatzen diren kapital eragiketak direnean izan ezik.

5.3.5.- Kreditu txertaketak egiteko eskumena alkateari, erakunde autonomoaren lehendakariari eta Toki Entitate Txikiko auzo alkateari dagokie, bere aurrekontuen eremuan.

5.3.6.- HERNANI ERABAKI (09 sailkatze organikoa) programaren barruko kredituak, kreditu txertaketei begira, sarrera finalistaren bidez finantzatutako kredituen izaera izango dute.

5.4.- Baliogabetzearen ziozko baxak

5.4.1.- Baliogabetzearen ziozko baxa gastuen aurrekontuaren aldaketa da, beti ere aurrekontuko partidaren bati esleitutako kreditua guztiz edo zati batez gutxitzen duenean.

5.4.2.- Gastuen aurrekontuko edozein kredituri eman dakioke baliogabetzearen ziozko baxa, beti ere dagoen kredituaren saldoaren zenbatekoan denean eta zuzkidura hori, harako zerbitzua ukitu gabe, gutxitu edo baliorik gabe utz daitekeela usten denean.

5.4.3.- Kredituen baxaren eragile, honako hauek izan daitezke:

- a) Diruzaintzaren gerakin negatiboen finantzaketa.
- b) Kreditu gehigarrien finantzaketa.
- c) Udalbatzaren beste erabaki batzuen betearazpena.

5.4.4.- Aurrekontuetan aurreikusitako kredituei baliogabetzearen ziozko baxa emateko, udalbatzak hartu beharko du erabakia.

5.5.- Kreditu gehigarriak

5.5.1.- Zainpeturiko ordainketa krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, hura aski ez bada eta zabalezina bada, gasturen bat egin behar izan eta arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez ezin bete denean, kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaio.

5.5.2.- Honi dagokionez, finantzaketa iturritzat hartuko dira:

- a) Diruzaintzaren gerakina
- b) Aurrekontu arruntean aurreikusitako sarrera osoen gainean likidatutako berriak eta handiagoak, beti ere sarrera oso horiek normaltasun osoz egiten direla frogatzen denean, helbururen bat izan behar edo badute izan ezik,
- c) Ordainketa kredituen baliogabetzearen ziozko baxak.

d) Kreditu eragiketetatik datozenak hartuko dira, beti ere batera honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Urteko zenbateko osoa ezin da izan aurrekontuaren eragiketa arrunten ziozko baliabideen %5 baino gehiago.
- Finantza zama osoa, proiektupeko eragiketatik datorrena barne, ez da baliabide horien %25 baino handiago izango.
- Eragiketak hitzartu dituen udala eraberritu baino lehen kitatu behar dira.

5.5.3.- Udaleko aurrekontua onartzea osoko bilkurari dagokio, salbu eta kreditu gehigarriak ez badira aurreko atalean aipatutako kreditu operazioekin finantzatzen eta metatuz gero urtean aurrekontuaren hasierako kredituak %5 baino gehiago gehitzea ez badakarte. Kasu horietan, alkateari dagokio.

5.5.4.- Erakunde autonomoaren eta Toki Entitate Txikiaren aurrekontuan eskumena, Lehendakariari edota Auzo-Alkateari dagokio, Udalaren kasuan aplikatzen diren baldintzak aintzat hartuta.

5.6.- Hitzarmenaren araubidea

5.6.1.- Udalak, bere erakunde autonomoak eta Toki Entitate Txikiak bere eskumenak hobeto gauzatzeko edo inbertsioari buruzko proiektu zehatzak batera egiteko beste toki erakunde batzuekin, Lurralde Historikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarekin edo Estatuaren Administrazioarekin egiten dituen hitzarmenen ondorioz aurrekontu orokorreko aurrekontuetako batean hasieran aurreikusitako gehigarri diren fondoak jasotzen badira, haiei dagozkien ordainketa-kredituak alkateak behar diren eginkizun egitarauetara eta orriei edo horretarako sortzen diren berriei txertatuko dizkie, edo erakunde autonomoaren lehendakariak, edo Toki Entitate Txikiaren auzo alkateak, bere aurrekontuen eremuan.

5.6.2.- Aurreko zenbakian aipatu diren hitzarmenek geroagoko ekitaldietarako konpromisoak eskuratzeko badakar, beraien finantzaketa udalaren, bere erakunde autonomoaren edo Toki Entitate Txikiaren aurrekontuaren barruko ordainketa kreditu guztien %5 baino handiagoa denean, konpromiso hori eskuratzeko udalbatzaren baimena beharko da.

5.7.- Kudeaketa enkargua:

Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, 11.3.b artikuluan ezarritakoan oinarrituta, Hernaniko Udalak bere baliabide propioa den Garbitania Zero Zabor SM-ren bitartez, ondoko zerbitzuak modu zuzenean ematen ditu:

- Hiri hondakin eta asimilagarrien bilketa derrigorrezko zerbitzu publikoa, udalerrri osoan, 2010 maiatzak 4 eta 2017 ekainak 20ko Osoko Bilkuraren erabakia.
- Kale-garbiketako derrigorrezko zerbitzu publikoa, 2018ko martxoaren 7ko Osoko Bilkuraren erabakia.

Aurrekontuaren dokumentazio erantsi bezala eransten da zerbitzu horiei dagokion Jarduera Plan Orokorraren txostena, datorren urtera egokitua.

6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko prozedura arautzeko arauak

1.- Gastuaren gauzatzearen faseak

Gastuen aurrekontua kudeatzeko fase hauek daude:

- a) Gastua egiteko baimena.
- b) Gastuaren erabilera edo konpromisoa.
- c) Betebeharraren aintzatespena.
- d) Gastuaren agindua.
- e) Ordainketa.

2.- Gastuen baimena eta erabilera

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arauak ondoren zehazten dira. Haatik, dagokion erakundeak aldatu ahal izango

ditu hemen jasotzen direnak:

- a) Udalbatzaren eskumenekoa da aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10etik gorako gastuak baimentzea eta erabiltzea, bai eta lau urtetik gorako iraupena dutenak ere, hainbat urtetarakoak direnak ere sartzen direla, lau urte baino gutxiagorako badira, baldin eta urte guztietako zenbatekoak metatuz aipatutako ehunekoa gainditzen bada, lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez eta, dena dela ere, idatz zati honetan aipatutako kopurua baino gehiagokoa baldin bada.
- b) Tokiko Gobernu batzarraren eskumenekoa da 100.000 eurotik gorako gastuak eta aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10etik gorakoak ez direnak baimentzea eta erabiltzea, urte anitzekoak ere sartzen direla, lau urte baino gehiagorakoak ez badira, baldin eta urte guztietako zenbatekoak metatuz ez bada gainditzen ez aipatutako ehunekoa, lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez, ez eta aipatutako kopurua ere.
- c) Alkate-lehendakariaren eskumenekoa da 100.000 eurotik gorakoak ez diren gastuak baimentzea eta erabiltzea.
- d) Erakunde autonomoan Zuzendaritza batzordearen eskumenekoa izango da 24.040 eurotik gorako gastuak baimentzea eta erabiltzea, eta lehendakariaren eskumenekoa, berriz, 24.040 eurotik beherakoak baimentzea eta erabiltzea.
- e) Toki Entitate Txikian Auzo Batzarraren eskumenekoa izango da 24.040 eurotik gorako gastuak baimentzea eta erabiltzea, eta edo auzo alkatearen eskumenekoa, berriz, 24.040 eurotik beherakoak baimentzea eta erabiltzea.

Gastuen baimenerako espedientea alorreko delegatuak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zurrizko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontu-hartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du, 21/2003 Foru Arauaren 65. artikulutik 74.era ezarritakoaren arabera.

3.- Betebeharrak aintzatestea

Alkateak aintzatsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak. Erakunde Autonomoan eskumen hori lehendakariari dagokio eta Toki Entitate Txikian auzo alkateari.

Betebeharren aintzatespena agiri bidez frogatu ahal izango da, kontu-hartzailearen txostena daramaten fakturen zerrenda batekin.

Aldez aurretik dagokion zerbitzuburuak faktura bakoitzaren gaineko diligentsia egin beharko du, arloko delegatuaren oniritziarekin, eta honako hauek jaso:

- Material, obra edo hornikuntza jaso izanaren egiaztatzea eta horrekiko adostasuna.
- Gastua onartu duen organoa eta data.
- Gatua zein partidari egotzi zaion eta hartutako gastuaren erreferentzia.

4.- Ordainketaren agindua

Aldez aurretik onartutako obligazioen ordainketa-agindua ematea alkateari dagokio, a erakunde autonomoaren kasuan lehendakariari eta, Toki Entitate Txikiaren kasuan, berriz, auzo alkateari.

5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:

- Gastuen baimena eta erabilera, Udalak, bere erakunde autonomoak eta Toki Entitate Txikiak legez hartutako konpromisoetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguren interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzen bidezko erosketak.

- Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean: 1.202 eurotik beherako erosketa arruntetan, dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina ordainketak eta Udalaren, bere erakunde autonomoaren eta Toki Entitate Txikiaren kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da beti ere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz zentralizatu gabeak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase guztiak erabakitzeke.

6.- Nominaren ordainketa.

Udal enplegatuen nominaren ordainketa, hileko azken-aurreko lanegunean egingo da.

Aparteko pagak, ekaina eta abenduan ordaindu beharrekoak, hilaren 21ean, edota honen urreko lanegunean.

7. artikulua.- Zuritu beharreko ordain-ketak

Egindako ordainketa-agindu guztiak agiri bidez frogatzeko printzipioaren salbuespen gisa, eta hurrengo oinarrian araututako kutxa finkoko aurrerakin zirkuitu bidez egitea ezinezkoa denean, “frogatu beharreko” izaera duten ordainketa-aginduak egin ahal izango dira eta dagozkion aurrekontu-kredituei aplikatuko zaizkie.

Egindako ordainketak dirutza jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira, eta, dena dela ere, urte ekitaldi itxi aurretik.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritzeke fondorik ez izatea.

8. artikulua.- Kopuru txikiko kontratu txikiak.

1. Kontratu txikien bidezko gastu exekuzioak errespetatuko ditu betiere, indarrean dagoen legerian eta bereziki SPKLn ezarritako gehienezko mugak, kuantitatiboak eta kualitatiboak.

2. Kontratu txikiak definituko dira bakarrik zenbatekoaren arabera SPKLren 118.1 artikuluekin bat etorritz. Kontratu txiki irizpena izango dute hauek:

— 40.000€koa baino zenbateko handiagoa ez duten obra kontratuak.

— 15.000€koa baino zenbateko handiagoa ez duten beste kontratuak.

Kontratu horiek ezin izango dute urte bateko iraupena baino luzeagoa izan, eta ezin izango dira luzatu eta ezin izango dira prezioak berrikusi, eta ezin izango dira inola ere kontratuak formalizatu.

3. Espedientea tramitatzeak beharrezkoa izango du kontratazio organoaren txostena kontratuaren beharra arrazoituz. Era berean eskatuko da gastua onartzea eta gastuan beharrezkoa den faktura sartzera, fakturak Arauz ezarriak diren eta obra txikien kontratuan ezarriak diren baldintzak betetzea, gainera obra aurrekontua, eta kontuan izanda Proiektua ere izan behar dela arau bereziek horrela errekeritzen dutenean. Era berean eskatu beharko da SPKLn 235 artikuluan aipatzen den gainbegiratze txostena, lanak egonkortasunari, segurtasunari edo obraren estanko-tasunari eragiten dienean.

— 600€+bez-koa baino zenbateko handiagoko kontratu txikiaren espedientearen tramitazioa prozedura honekin egingo da:

Gastuaren onarpena

- Kontratazio-proposamena beteko da, ereduaren arabera, arduradun teknikoak eta politikoak sinaturik, azalduz gastuaren helburua eta zerbitzuaren arduradunak onena ikusten duen eskaintza.
- Kontu-hartzaitzaren egiaztatzea esanez aurrekontu kreditu egoki eta nahikoa dagoela (BE Kontabilitate agiria).

- Egin ondoren aurrekontu kreditu nahiko eta egokia dagoela esaten duen Kontu-hartzaitzaren egiaztagiria, Gastu Proposamena onespenera eramango da, Alkate-Presidentearen edo Zinegotzi-Ordezkararen onspena jasotzera.

— 4.000€koa baino zenbateko handiagoa duen kontratu txikiaren espedientearen tramitaziorako, Kontratazio-proposamena beteko da, ereduaren araberakoa, arduradun teknikoak eta politikoak sinaturik. Proposamenari hiru eskaintza erantsi behar zaizkio gutxienez (hala ez egiteko arrazoi justifikaturik ez badago), ongi zehaztuak eta aurrekontuari egokituak. Eta horietako baten aldeko proposamen arrazoitua egin behar da, ereduaren oharren atalean (5. atala) edo, bestela, erantsita joango den txostenean. hiru aurrekontu eskatu beharko dira.

— Gastu arrunt errepikakor eta txikiak gauzatzeko prozesua (600 euro+bez kopurutik behera) alde zurrerako gastu baimenduen bidez egingo da, Kontratazio-proposamena bideratu beharrik gabe.

9. artikulua.- Kutxa finkoko aurrerakinak

Aldizkako izaera duten edota errepikakorren diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute.

Honako zerbitzu hauei baimentze zaie kutxa finkoko aurrerakinak erabiltzea:

- a) Udaltzaingoa: zerbitzu honen izenean udaltzain-buruari, presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- b) Argi eta Ur Zerbitzua: zerbitzu honen izenean Argi eta Ur Zerbitzuko buruari, joan-etorri, dieta eta presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- c) Mantentzea eta zainketa: udal aparejadorea, presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- d) Kultura zerbitzua: zerbitzuaren izenean Kultura dinamizatzaileari, garraiotarako eta presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- e) Udal euskaltegia: euskaltegiaren izenean zuzendariari, presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- f) Bake epaitegia: haren izenean epaile titularrari, presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- g) Musika eskola: musika eskolaren izenean zuzendariari, presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.
- h) Udal artxiboa: haren izenean artxiboko teknikariari, garraiotarako eta presazkoak diren funtzionamendu gastu txikietarako: 300 euro.

Kutxa finkoko aurrerakinak alkateak baimenduko ditu, alorreko ordezkariak proposatuta. Diru-hornidura automatikoki berri daiteke aurrerakoaren likidazioa aurkeztu ondoren.

Fondoan jasotzaileek horiek askatasun osoz erabili ahal izango dituzte aurreikusitako arretak eta helburuak ordaintzeko, guztiz galarazita gelditzen da fondo horiek nork bere helburuetarako erabiltzea. Aurrerakin jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean Udalaren izenean, jasotako fondoak bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko.

Kutxa finkoko aurrerakin jasotzaileek Udal Kontu-hartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehienez eta, beti ere, abenduaren 30a baino lehen.

Aurrerakinak zurritzean, dagokion aurrekontu partidari aplikatu beharko zaizkio ordain-aginduak.

10. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalte-ordainak

Alkateak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalte-ordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorrien gastuak:

- Joan-etorriak: **0,29 euro kilometroko**, gehi bidesariak, gehi aparkalekuaren gastuak, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.
- Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

b) Otordu eta ostatu gastuak:

Zenbatekoa bat etorriko da benetan egindako gastuarekin eta behar bezala justifikatu beharko da.

Funtzionarioek eta langile kontratatuek egindako lanen kalte-ordainei buruz Eusko Jaurlaritzak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasotako indemnitazioak hartzeko eskubidea izango dute. Halaber, ezarri beharrekoak izango dira Dekretu horretako xedapen osagarriak eta indemnitazio horien zenbatekoa aldizka berraztertze erabiltzen diren dekretuak.

Kasu guztietan, bai hautetsiek bai gainerako udal langileek egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jasoaz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalte-ordainaren zenbatekoa.

11.- artikulua.- Udalbatzako kideen ordainsariak eta udal talde politiko bakoitzarentzako diru-kopuruak.

Udalbatzako kideen ordainsariak eta udal talde politikoen diru-kopuruak, “912.00-Gobernu Organoak” gastu programan jasotako aurrekontu partidetan jasoko dira.

Alkateari eskumena ematen zaio, berariaz erabakitzeke zein kidek beteko dituzten dedikazio osoko karguak, zeinek dedikazio partzialeko karguak, eta aplikatu beharreko soldata mailak, talde politikoen proposamenak kontuan hartuta, eta beti ere aplikagarria den araudia eta honek ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.

Hori horrela, aplikaziorako irizpide hauek finkatzen dira:

11.1.- Erabateko dedikazioa izango duten gehieneko lanaldi kopuruak hauek izango dira:

- Alkatea. 1
- Gobernu Erantzukizuna duten zinegotziak (alkateorde edo delegatuak). 6
- Gobernu Erantzukizuna ez duten zinegotziak. 3

Izendapenen berri Udalbatzari emango zaio, hurrengo osoko bilkuran.

11.2.- Dedikazio osoa edo partziala duten karguen gutxieneko soldata maila (soldata gordina urtean):

- Alkatea. 50.077,818 €
- Gobernu Erantzukizuna duten zinegotziak. 36.171,24 €
- Gobernu Erantzukizuna ez duten zinegotziak. 32.554,2588€

Dedikazioa duten zinegotzietan, Udalean liberazio bat hartzeko utzi behar izan duten lanaren soldata bermatuko zaie.

11.3.- Dedikazio partzialak, proportzioz ordainduko dira dedikazioaren arabera, baina beti ere, gutxienez %20-ko dedikazioa beharko da ordain saria jaso ahal izateko. Dedikazio partzial honek gehieneko muga izango du, udalean nahiz kanpoan duten dedikazio partzialen baturak ezingo baitu %100eko lanaldia gainditu. Udalaz kanpo duten dedikazioa eta soldata, enpresa ziurtagiri bidez kreditatu beharko dira.

11.4.- Udal-talde politiko bakoitzari dagokion diru-kopurua: alde batetik kopuru finkoa jasoko dute: **639** euro hileko; eta bestalde, kopuru aldakorra: **197** euro hautetsi bakoitzarengatik.

11.5.- Oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango du, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko. Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde emaitzen arabera ordezkari kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari. Boto-berdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka baliatuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan.

11.2 artikulua honetan jasotako soldata guztiak, 2020 urteari dagozkionak dira, eta urtero egokituko dira pertsonalari egokitutako igoera aplikatuz.

12. artikulua.- Diru-laguntzak

Udalak eta bere Erakunde Autonomiadunak ematen dituzten diru-laguntzak, honen baitan arautuko dira: batetik, “Diru-laguntzak Emateko Araudia”n ezarritakoaren arabera -Aurrekontua Gauzatzeko Arau honekin batera doana-, eta bestetik, 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

13. artikulua.- Ikastaroak

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:

a) Baimenaren proposamena Alor horretako arduradunak prestatuko du, besteak beste honako datuak jasoz:

- Ikastarora doanaren datuak, izen-abizenak, lanpostua, e.a.
- Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
- Orduetgia.
- Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.

b) Alkateak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez kontu-hartzaileak aurrekontu krediturik badagoenentz eginiko txostena ikusita.

c) Ebazpena ikusita, diruzainak “zuritu beharreko ordainketen” izaera izango duen diru-hornidura egingo du.

14. artikulua.- Hautapen Epaimahaietako kideak

Dagokion deialdiaren oinarrien arabera udalbatzakoa edo udal plantillakoa izan gabe Udalak nahiz bere Erakunde Autonomoak eraturako epaimahaietan parte hartzen duten pertsonak edo, hala balegokio, zeregin horretarako izendatu dituen entitate edo erakundeak ondorengo diru-kopuru hauek sortaraziko dituzte, parte-hartze hori xedapen zehatz batek arautzen duenean izan ezik:

a) Lokomozio gastuak: garraio gastuaren zenbateko ezagunaz, edo alternatiboki, lekualdaketa norberaren ibilgailuan egiten bada, **0,29 euro** jasoko du kilometroko gehi bide-sariari dagokion zenbatekoa (autobidea).

b) Dietak: egonaldia gastuaren zenbateko ezagunaz itzuliko da.

15. artikulua.- Kredituak aurrerapenez txertatzea

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiok batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

- 21/2003 Foru Aginduaren 32.1 artikuluan jasotako egoeraren batean egotea.

- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu diru-sarrera helburudunen bitartez finantzaturako kapital eragiketak badira.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30a baino lehen egin behar da beti.

Aurrerapenez txertaturako kredituen helburua, jatorriz zeuden aurrekontuan zeukaten helburu bera izango dute.

Finantza-baliabide nahikoa badagoela egiaztatuta beharko da horiek aurrez eman ahal izateko.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoek kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

16. artikulua.- Fakturazio elektronikoa:

Kontratazio administratiboaren esparruan, Udalari zuzendutako faktura elektronikoen jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz bermatu behar dira, sinadura elektronikoa arautzen duen abenduaren 19ko 59/2003 Legeak 3.3 artikuluan eta 25/2013 legean jasotakoari jarraiki.

Faktura elektronikoko horiek «Facturae» formatua izan behar dute. Honi dagokionez, Udalgida web orrian, www.udalgida.net helbidean eta Udalaren Web orrian, www.hernani.net, kontsultatu ahal izango da «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa, eta Udalari faktura elektronikokoak bidaltzeko prozedurak.

Aipatu zehaztapenak eta prozedurak bete gabe Udalari bidaltzen zaizkion faktura elektronikokoak errefusatuta geratuko dira.

3.000 euro azpitik fakturak, faktura elektronikoa bidaltzetik salbuetsita izango dira.

KONTU-HARTZE KONTROLA ETA BARNE KONTROLA

17. artikulua.- Kontu-hartze kontrola. Finantza kontroleko plana.

17.2.- Funtzio ikuskatzailearen jardura gastuen eremuan, ikuskatze mugatuaren bidez:

Bat. Aurrekontuaren araudiak aurreikusitakoaren arabera, Udaleko osoko bilkurak aurretiazko ikuskatzea onartzen eta ezartzen du, artikuluko honetan landutako aspektuetara mugatuta, eta ez zaio kalterik egingo aipatutako obligazioen edo gastuen ikuskatze mugatua eragin zuten ekintzen, dokumentuen edo txostenen lagin adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatze osoaren bidezko egiaztapenari.

Bi. Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko ekintza guztien aurretiazko ikuskatzea eta kontu-hartzailetza jarraian adierazitako oinarrizko baldintza hauek egiaztatzen mugatuko dira:

a) Lotura mailan aurrekontu-kreditua izatea, eta aurrekontua egokia izatea. Alde horretatik, kreditua egokitzat joko da, udal diruzaintzaren gain dauden hartu beharreko edo sortutako eta ez preskribatutako obligazioak finantzatzeko dituenean, horretarako legez ezarritako baldintzak beteta.

b) Obligazioak edo gastuak erakunde eskudunak sortzea.

c) Gastua finantzatzeko baliabideak eskuragarri egotea.

d) Obligazioak edo gastuak aurrekontuaren egonkortasuna edo finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.

e) Obligazioari edo gastuari sostengua ematen dioten dokumentuak egokiak izatea eta beharrezko sinadurak eta baldintzak izatea. Alde horretatik, gastuaren obligazioa aitortzeko dokumentazioak zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa izango ditu.

f) Konpromisoetako kredituen eta hainbat urtetarako gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuetarako Foru Araudiak ezarritako mugak eta baldintzak betetzea.

g) Obligazioa edo gastua bere gain hartzen duen aurrekontu-sailak iragankortasun arauak betetzea, bai eta espezialitate- eta espezifikazio-arauak ere, gastuaren izaera funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera, bai eta izaera organikoaren arabera ere, kasua balitz.

h) Kudeaketa-prozesuan duten garrantzia dela eta, Udaleko osoko bilkurak erabakitako bestelako aspektuak.

Hiru. Aurreko atalean ikusitako aspektuez gain, kontratuetatik, hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik, bai eta langileen gastuetatik eta bestelakoetatik ere ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituen ikuskatze mugatuak jarraian adierazitako aspektuak ere egiaztatuko ditu:

a) Kontratuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Agiriak, hautaketa-irizpideak eta horien balorazioak zein kontratazio-prozedurak Sektore Publikoko kontratuen arloko indarreko legeriara egokitzea.
- Kontratua eta hautatutako prozedura justifikatzea.
- Aldaketa posibleen legearen arabera, kontratuen beharrezko aurreikuspena.
- Kontratuaren iraupena egiaztatzea eta justifikatzea, luzapenak barne.
- Aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiagoren gain gauzatu behar diren kontratuetan, gastuaren sail kudeatzailearen arduradunek kontratuaren beharrezko denbora- eta finantza-plangintza gauzatu izana.
- Lanetan, hasi aurreko zuinketa-akta, eta azken ziurtagiriaren azken harreraren eta onarpenaren akta.
- Euren gauzapena ekitaldi batera baino gehiagora luzatuz gero, agiriak gastuan inplikaturako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eskuragarri dauden sailak eta zenbatekoak zehaztea.
- Labur esanda, eragozpenerako txantilo normalizatuari erantsitako kontratuetatik ondorioztatutako gastuen kontrolari buruzko eranskinean jasotako aspektu guztiak egiaztatzea.

b) Hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Diru-laguntza izendunak objektua eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontu-saila izatea.
- Diru-laguntza izendunaren txostenean, prozedura-aukera konkurrentzia lehiakorraren salbuespen gisa justifikatzea.
- Egin beharreko hitzarmenaren xedea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginak araututako kontratuen barnean ez egotea.
- Behar bezala zehaztutako hitzarmena edo diru-laguntza diru-laguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.
- Hirugarrengoaren akreditazioa edo onuradunak zerga-obligazioetan eta gizarte-segurantzaren aurrean egunean dagoenaren egiaztatzea.
- Onuradun-baldintza lortzeko debekurik ez izatea.
- Onuradunak funtsen helburua justifikatzea, hitzarmenean edo deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen legeriaren arabera. Bai eta justifikazioaren akreditazioari buruzko diru-laguntzaren sail kudeatzailearen txostenaren konstantzia ere espedientearen.
- Diru-laguntzako espedientearen datuen mekanizazio egokiaren egiaztatzea;
- Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, diru-laguntzen arloko indarreko legeriaren arabera.
- Labur esanda, eragozpenerako txantilo normalizatuari erantsitako hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik ondorioztatutako gastuen kontrolari buruzko eranskinean jasotako aspektu guztiak egiaztatzea.

c) Langileen gastuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Indarreko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainontzeko legeria aplikagarriak ezarritako baldintzak eta mugapenak betetzea.
- Proposatutako gasturako legez eska daitezkeen baldintzak betetzen direla frogatzen duen langileen sail arduradunaren txostena egotea.
- Finkoak ez diren edo aldizkako epemuga ez duten ordainsariak aitortzen dituzten gertakari kasuan (haborokinak, aparteko orduak, kalte-ordaina...), hori ordainsari hori jasotzeko eskubidea aitortzen duen erakunde eskudunak igorritako ebazpenaren edo akordioaren txostenera erantzea
- Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, indarreko legeriaren arabera.

d) Bestelako gastuak:

- Kutxako aurrerakinerako gehienezko gastu posiblea arautuko duen akordioa izatea.
- 18.000,00€ko edo gehiagoko ondare-erreklamazioetan, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholkulariaren irizpena izatea.
- Bestelako funtsezko baldintzak, obligazioaren edo gastuaren arabera.

Lau. Erakunde kontu-hartzaileak egokitzen jotako behaketa osagarriak egin ahal izango ditu, horiek dagozkien espedienteen izapidetzean inolako etendura-eraginik izan gabe. Gainera, behaketa osagarri horiei dagokienez, ez da

desadostasun planteamendua egin beharko.

Bost. 600 €tik (BEZ kanpo) beherako kontratu txikiek eta kutxa finkoko aurrerakinek ez dute aurretiazko ikuskatzerik izango. Aurrekontu-sail bakoitzean kreditua dagoela egiaztatzeko Sail kudeatzailearen ardurari kalterik egin gabe.

Sci. Ondorengo artikuluetan garatu bezala, aurretiazko kontrol mugatuak ondorengo ikuskatze osoa ekarriko du berekin, ikuskaritza- eta laginketa-teknikak erabiliz; horren emaitza barne-kontrolako urteko txostenean islatuko da, atal independente gisa, ondorengo kontrol ikuskatzaile osoari buruzko txostena izenburuarekin.

17.3.- Ondoko kontrol kontu-hartzaile osoari buruzko txostena:

Bat. Ikuskatze mugatuaren onarpena eta ezarpena dela eta, finantza-kontrolako urteko txostenarekin batera, erakunde kontu-hartzaileak ondoko kontrol kontu-hartzaile osoaren ekintzen emaitza igorriko du, gastuen espedienteen lagin adierazlearen gainean.

Erakunde kontu-hartzaileak lagina hautatzeko aplikatu beharreko prozedurak zehaztuko ditu, eragiketa-talde jakin batzuetako hutsuneei buruzko aurretiazko informazioa duten kasuak zein hutsuneren bat detektatu duten prozedurak gailenduta. Gainera, lagina indarreko aurrekontuaren % 1 izango da, gutxienez.

Bi. Txosten hori osoko bilkurari bidali baino lehen, eragindako Unitate kudeatzaileak mugituko dira, gehienez, 10 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta horiek ikusita, erakunde kontu-hartzaileak behin betiko txostena igorri dezan.

17.4. - Funtzio ikuskatzailearen jarduera diru sarrerren eremuan, ikuskatze mugatuaren bidez:

Bat. Aurrekontu-araudian aurreikusitakoaren babespean, Udaleko osoko bilkurak Diru-sarrerren aurretiazko ikuskatze mugatua onartzen eta ezartzen du.

Horrela, diru-sarrerren arloko aurretiazko ikuskatzea kontularitzako arrazoi-hartzeagatik ordezkutzen da. Gastuen kasuan bezala, sistema horrek laginaren gaineko diru-sarrerren ondoko egiaztapen osoa eskatzen du, emaitza aurreko 4. Artikuluan araututako txostenean bilduta.

Bi. Diru-sarrerren eremuko ikuskatze mugatua hurrengo aspektuen egiaztapenaren bidez egingo da:

a)Organo eskudunak ordaintzea.

b)Kontularitzako arrazoi-hartzea gauzatzea.

c)Kasua izanez gero, dagokion BEZ igortzea.

d)Diru-sarrera bidegabean itzuleraren arloan, itzulera kudeatzen duen Sailak igorritako aldeko txostena izatea.

e)Errolden eta zerrenda frogagarrien ikuskatzean, indarreko legeria betetzen dela egiaztatzen duen Sail kudeatzailearen txostena izatea.

17.5.- Finantza eta ikuskapen kontrolaren jarduera.

Bat. Erakunde kontu-hartzaileak finantza-kontrolaren funtzioa gauzatuko du, araudiaren arabera erabakitako erakundearen kontuen ikuskaritza barne.

Bi. Tokiko Sektore Publikoaren Barne Kontrolerako arubide juridikoa erregulatzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak xedatzen duen bezala, urtero, urteko kontuen auditoretza lanak egingo dira: Udalean, eta menpeko erakundearen kasuan.

Hiru. Lan hauek burutzeko, auditoretza pribatuko zerbitzuak kontratatuko dira, organo kontu-hartzailearekin lankidetzan aritzeko, eta sortzen den gastua ordaintzeko aurrekontuak zuzkidura egokia eta nahikoa jasoko du.

Lau. Finantza-kontrola honako subjektu hauei dagokienez gauzatuko da:

a) Zerbitzuak, Erakunde Autonomoak eta, bereziki, tokiko erakundearen menpeko Merkataritza Sozietateak, bai eta Enpresa Entitate Publikoak ere.

b) Merkataritza Sozietateak, enpresak, erakundeak eta diru-laguntzengatiko, kredituengatiko, abalengatiko eta Udalaren zein Aurrekontu Orokorraren kontura emandako gainontzeko laguntzengatiko partikularrak.

Bost. Finantza-kontrolaren helburua finantza-informazioaren aurkezpen egokiaren, aplikatu beharreko arauen eta zuzentarauen betearazpenaren eta aurreikusitako helburuen lorpenaren efikazia- eta efizientzia-mailaren berri ematea da.

Sei. Finantza-kontrola ikuskaritza-tekniken bidez egingo da, eta honako hauek izan daitezke, besteak beste:

a) Kontularitza-erregistroen, finantza-kontuen edo egoeren azterketa, analisi-prozedura zehatzen aplikazioaren bidez.

b) Banakako eragiketa zehatzen azterketa.

c) Kontrolatutako erakundeak gauzatutako ekintza-serie baten aspektu partzialak eta zehatzak egiaztatzea.

d) Inbertsioen eta bestelako aktiboen egiaztapen materiala.

e) 16. oinarriko Bigarren atalean aipatutako kontrolatu daitezkeen subjektuen kontuei buruzko ikuskaritza-txostenen azterketa eta analisia, hori egiteko legalki gaitutako enpresen bidez.

f) Erakunde kontu-hartzaileak erabakitako bestelako egiaztapenak, kontrolatutako erakundeek gauzatutako jardueren ezaugarri bereziei arreta jarrita.

Zazpi. Urtero, Kontu Orokorraren espedientearen izapidetzearekin batera, gauzatutako kontrolaren emaitza gisa, eta barne-kontrolaren testu araugilearen baldintzetan, erakunde kontu-hartzaileak gauzatutako azterketatik ondorioztatutako behaketak eta ondorioak jakinarazten dituen testu idatzia aurkeztuko du. Txostenean, epigrafe jakin batean, menpeko merkataritza-sozietateek derrigorrez jasaten duten finantza-kontrollean lortutako emaitzak jasoko dira; izan ere, aipatutako sozietateak ez daude funtzio kontu-hartzailearen menpe.

Ikuskatutako erakundeak egindako alegazioekin batera, finantza-kontrolari buruzko txostena osoko bilkurara bidaliko da, horrek aztertu eta ezagutu dezan.

Zortzi. «Ondoko barne-kontrol osoari buruzko txostenaren» zein «finantza- eta ikuskaritza-kontrolari buruzko txostenaren» urteko izaera dela eta, dokumentu bakar batean aurkeztuko dira, nahiz eta txosten independenteak izan; izan ere, lehena erakunde kontu-hartzailearen jardueren barnean enkoadratzen da, funtzio kontu-hartzailearen jardueran, modu mugatuan jarduterakoan, eta bigarrenak baliabideen kudeaketako ekonomia-, efikazia- eta efizientzia-printzipioen betearazpenaren egiaztapenari erantzuten dio.

17.6.- Diru-laguntzen eta laguntza publikoen finantza-kontrolaren inguruan:

Bat. Finantza-kontrola erakunde kontu-hartzaileak gauzatuko du, diru-laguntzen eta laguntza publikoen onuradunei dagokienez.

Kontrol-lanetan antzematen bada laguntza edo diru-laguntza ez dela zuzen lortu eta erabili, edo jasotako laguntza edo diru-laguntzaren helburua ez dela aurkeztutakoa, orduantxe, erakunde kontu-hartzailearen aurretiazko baimenarekin, ikuskatze-lanak egiteko ardura dutenek atxiki ahal izango dituzte fakturak, agiri baliokideak nahiz ordezkioak eta eragiketa susmagarriei buruzko beste edozein agiri.

17.7. - Efikazia kontrolaren jarduera:

Eraginkortasunaren kontrolak helburuen betetze-maila aldiari behin egiaztatzen du, eta dagozkion zerbitzuen edo zerbitzuen funtzionamendu-kostua eta errendimendua aztertzen ditu, aipatutako kontrolak erabaki politikoei buruzko iritzirik eman ahal izan gabe.

Kontrol hori foru-araudiak eta aplika daitezkeen gainontzeko legeriak araututako prozeduretara eta printzipioetara doitu da.

18. artikulua.- Saldo kobragaitzen estimazioa.

Saldo kobragaitzen eta zalantzazko kobraketen saldoa kalkulatzeko, ondoko gutxieneko portzentaiak zehazten dira:

- Bi urtetik gorako zorrak: %100.

- Urtebetetik gorako zorrak: %50.
- Urtebetetik beherako zorrak: %25.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehena.- Aurrekontuaren egokitzapen teknikoak.

Udal Kontu-hartzaileari baimena ematen zaio aurrekontuan bidezko egokitzapen teknikoak egiteko, horiek berrantolaketa administratiboen ondorioz beharrezkoak direnean, txertatu gabeko gastu partidetan dagokien lanak aurrekontuari egozteko egin beharreko moldaketak, edo haien xedea sarrerak eta gastuak egoki kontabilizatzea denean. Behar diren aurrekontu partidak sortuko ditu horretarako.

Alkatea, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernani, 2020ko azaroaren 2a.